

# FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Hainbat enpresekin kontaktuan ipini behar gara, produktuak egiten ez dugulako, hau da, produktu horren bitartekariak gara, beste era batean esanda, produktua ekoizten duten enpresatik hartu, gure diseinuak ipini eta, kontsumitzaileengana eramaten ditugu.

Alde batetik, gure hornitzaileen profila azalduko dugu, elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoak finkatuko ditugu, salduko ditugun produktuak eskuratzeko. Hala nola, enpresa baten adibidea, **Solubag** enpresa da. Enpresa Txiletar honekin kontaktuan ipiniko gara haien poltsa hidrodisolbagarriak eta haien teknologia edo berrikuntzak lortzeko. Kasu honetan, enpresa honekin jartzen gara harremanetan, baliabideak eskuratzeko, eta guk diseinuan arreta jartzeko. Esan dugunez, Solubag-ek uretan disolbatzen diren poltsa hidrosolbagarriak eskaintzen ditu, eta horregatik jarri gara kontaktuan haiekin. Solubag-i buruz informazio gehiago eskuratzeko: <http://solubag.cl/>

		
SE DISUELVEN EN POCO TIEMPO CON AGUA FRÍA O CALIENTE	SON ELABORADOS CON UN MATERIAL QUE ES 100% AMIGABLE CON EL MEDIO AMBIENTE	NUUESTRA TECNOLOGÍA PERMITE PRESENTAR DIFERENTES SOLUCIONES
Nuestros productos son formulados a partir de alcohol polivinílico (PVA) material que es soluble al agua, totalmente biodegradable y no contienen aditivos tóxicos.	Las materias primas de nuestros productos han sido sometidas a estudios por el SGS para 19 tipos de contenido de metales pesados y 17 tipos de detección de plastificantes que están prohibidos por la Unión Europea.	Tipo de materiales totalmente biodegradables y productos de compostaje (norma ISO14855): velocidad de biodegradación $\geq$ 90% en 180 días.

Beste hornitzaile bat **Grupo Billingham** izan daiteke, enpresa honek oihalezko poltsak egiten ditu, enpresa honekin ere jarri gara harremanetan, enpresak eskaintzen dituen produktuak eskuratzeko. Kasu honetan, nahiz eta poltsa biodegradableak ez izan, kotoiez eginda daudenez, hainbat erabileratako balio dute. Azken adibidea, **Monouso** enpresa da. Enpresa honek, edalontzi berezi batzuk eskainiko digute, edalontzi hauek azukre kanaberaz eginda daude, horregatik, lurrera botatzean oso azkar desegino dira. Aurreko guztiekin bezala, enpresa honekin jartzen gara kontaktuak haien produktuak eskuratzeko.

<https://www.grupobillingham.com/bolsas-personalizadas>

<http://www.monouso.es/vasos-biodegradables-pla/vaso-pla-bio-transparente-230ml-3000-uds-10141.html>

Gainera gure produktuak garraiatzeko erabiliko dugun enpresa banatzailea Fedex izeneko izango da, bere betekizuna, guk hornitzen ditugun enpresei gure produktuak ahalik eta ongien helaraztea.

Beste aldetik, guk hornituko ditugun enpresak askotarikoak izango dira. Lehenik, enpresa handizkarietara eskainiko diegu, adibidez, ezin hobea supermerkatuetara dira, hauekin elkarrekin sortuko ditugu eta supermerkatuan edonon erosketa bat egiterakoan gure bi poltsa mota eskainiko diegu bezeroei, alde batetik hidrodisolbagarriak eta beste aldetik oihalezkoak. Bigarrenik, txikizkarietara edo partikularretara ere eskainiko dizkiegu gure produktuak, kantitate handietan saltzeko aukera izango dugu, partikularrentzat zein handizkarietara onuragarria dena.

Gainera gure enpresaren barnean hainbat elkarte sortuko ditugu, bakoitzak dituen gaitasunak elkartuz, adibidez, Yaizak eta Aialak elkartuko dira oihalezko poltsaketako diseinuak egiteko. Yaizak duen marrazki gaitasuna eta Aiala daukan hitzaren dohaina lortuko dugu diseinu erakargarriak lortzeko.

Elkarte hauek oso garrantzitsuak dira, gure enpresaren funtzionamendua egokia izateko. Hasiera batean hornitzaile gabe, ezinezkoa izango da gure enpresaren jarduerak aurrera eramatera, gure funtzioa bitartekariak izatea delako, eta produktuak ez baditugu, ezin izango dugu gure bezeroei hornitu. Beste aldetik, bezerorik gabe ezinezkoa izango da gure enpresa aurrera eramatea. Hortaz, funtsezko sozietateak mantentzea ezinbestekoa izango da, gure enpresaren funtzionamendu egokirako.

Gure enpresaren barruan guztien rola ezinbestekoa izango da, produktua ondo kudeatzeko, bezeroak lortzeko eta hauek mantentzeko. Guztiok elkarrekin hainbat gauzak egiten ditugu baina bakoitzak zenbait betebeharrak egiten ditu bere gaitasunaren arabera eta guztien lana elkartuz emaitza handiagoa lortuko dugu (Sinergia).

- Yaiza: Diseinuaren arloan jokatzeko du, zehatzago marrazkietan. Konkreteki, Yaizak, bezeroei erakarri ahal dien marrazkiak egiten ditu, geroago poltsaketan inprimatzeko. Honekin, diseinu pertsonal bat lortzen dugu eta bezeroen aurrean erakargarriagoak gara, hau da, Yaizak, salmenta arloa arrakastatsua izatea lortuko dugu. Yaizak ere, gure enpresak duen logotipoaren sortzailea da.
- Aiala: Diseinuaren arloan jokatzeko ere bai, zehatzago, idatzitako esaldietan. Aialak, enpresaren esloganaren sortzailea da, eta Yaizarekin batera, poltsen

diseinuaz arduratzen da. Beste aldetik, Aialaren erantzukizun handi bat, dendaren barruko salmentaz arduratzea, hau da, salmenta tokian egindakoak; azken kontsumitzaileari zuzendutakoak kudeatzen ditu.

- Irati: Elkarre harremanak (banatzaileekin) zuzentzen ditu (supermerkatuak, eta banatzaile ohiak) eta salmenta handiak kudeatzeko ardura du. Hortaz gain, enpresaren marketin estrategia bideratzen du, hau da, marketin-zuzendaria da
- Noelia: hainbat arlotan aritzen da, horien artean: zuzendaritza-arloa, ekoizpen-arloa eta hornitze-arloa. Bere betebeharrak nagusiak, hornitzaileekin eta banatzaileekin harremanak zuzentzea, eta helburuak zehazten ditu, talde kide bakoitzak dagokion betebeharrak ondo burutzeko.
- Joseba: bi arlotan aritzen da nagusiki, horien artean, administrazio- eta zuzendaritza-arloa eta kontabilitate- eta finantzaketa- arloa. Bere eginkizun nagusienak, negozio operazioaz arduratzea eta diru mugimendu guztiak, bai barruan bai enpresatik kanpo, kudeatzeaz arduratzen da.